BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DEBABARRENA ESKUALDEKO UDALERRIETAN ANIMALIA BIZIAK ETA HILAK JASOTZEKO, ANIMALIEN ONGIZATERAKO ZENTROAN MANTENTZEKO, USOAK BILTZEKO ETA KATUAK BILDU ETA HAA (HARRAPATU-ANTZUTU-ASKATU) METODOAREKIN TRATATZEKO ZERBITZUARENA.

AURKIBIDEA

1. XEDEA
2. KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEA
3. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA
   3.1 KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA
   3.2 LIZITAZIOAREN GEHIENEKO AURREKONTUA
   3.3 LIZITAZIOKO PREZIOAK
4. DERRIGORREZ BETE BEHARREKO BALDINTZA TEKNIKOAK – NAHITAEZKO BETEKIZUNAK
5. LIZITATZAILEAK BETE BEHAR DITUEN BETEKIZUNAK
6. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
   6.1 3. GUTUN AZALEAN BAKARRIK SARTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA, FORMULAK APLIKATUZ EBALUATZEKOA
   6.2 2. GUTUN AZALEAN BAKARRIK SARTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA, BALIO JUDIZIOEN BIDEZ EBALUATZEKOA – EGIN BEHARREKO LANARI BURUZKO TXOSTENA
7. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK
   7.1 FORMULA BAT APLIKATUZ ESLEITZEN DIREN PUNTUAK EMATEKO IRIZPIDEAK (IRIZPIDE AUTOMATIKOAK)
   7.2 BALIO JUDIZIO BATEN ONDORIOZ ESLEITZEN DIREN PUNTUAK EMATEKO IRIZPIDEAK
8. INFORMAZIO OSAGARRIA
9. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO PREZIOA KALKULATZEKO METODOA

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DEBABARRENA ESKUALDEKO UDALERRIETAN ANIMALIA BIZIAK ETA HILAK JASOTZEKO, ANIMALIEN ONGIZATERAKO ZENTROAN MANTENTZEKO, USOAK BILTZEKO ETA KATUAK BILDU ETA HAA (HARRAPATU-ANTZUTU-ASKATU) METODOAREKIN TRATATZEKO ZERBITZUARENA.

1. XEDEA

Ondoan aipatzen diren zerbitzuak emateko kontratuaren oinarritzat hartuko diren hainbat baldintza tekniko zerrendatzea da baldintza agiri honen xedea: Debabarrena eskualdeko udalerrietako herriguneetan animalia biziak, txakurrak eta katuak, indarrean dauden eta aplikagarriak diren udal ordenantzak betetzen ez dituztenak, jasotzea eta, gero, animalien ongizaterako zentroan mantentzea; aipatu herriguneetan usoak biltzea; Debabarrena eskualdeko udalerrietako bide publikoetatik "azienda txikia" delako multzoko animalia hilak (txakurrak, katuak, usoak, arratoiak, ardiak eta abar) biltzea; eta katuak HAA prozedurari jarraituz harrapatu eta antzutzea; hori guztia, zorrotz beteta lehiaketaren xedea osorik betetzeko egin beharreko lan nagusi eta osagarriak egikaritzeari lotutako zeregin guztiei aplikatzekoak diren arauak eta legedia, eta, bereziki, honako hauek:

- ⇨ 444/1994 Dekretua, azaroaren 15ekoa, gune zoologikoen baimen, erregistro eta kontrolari buruzkoa.
- ⇨ 6/1993 Legea, urriaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Animaliak Babestekoa.
- ⇨ 454/1994 Dekretua, azaroaren 22koa, EAEn animaliak hiltzerakoan babesteari buruzkoa.
- ⇨ 101/2004 Dekretua, ekainaren 1ekoa, txakurrak edukitzeari buruzkoa.
- ⇨ 50/1999 Legea, abenduaren 23koa, arriskutsu izan daitezkeen animaliak edukitzearen araubide juridikoari buruzkoa.
- ⇨ 287/2002 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, EAEn arriskutsu izan daitezkeen txakurrak edukitzearen araubide juridikoari buruzko 50/1999 Legea garatzen duena.
- ⇨ 1993ko maiatzaren 5eko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoan abereen identifikazio elektronikoari buruzkoa.
- ⇨ 1993ko maiatzaren 25eko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurren identifikazioari buruzkoa.

Orientabide moduan, jakinarazten da 2019an jasotako animalia kopurua hau izan zela: 96 txakur, 31 katu eta 62 uso; hildako animaliei dagokienez, 55 katu eta 30 uso jaso ziren. 2020an, jasotako animalia kopurua hau izan zen: 100 txakur, 29 katu eta 75 uso; eta hildako animaliei dagokienez, 48 katu eta 33 uso jaso ziren.

2. KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEA:

Kontratuak BI urteko iraupena izango du, eta urte batez bi aldiz luzatu ahal izango da, gehienez ere 2 urtez.

3. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

3.1) KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Lehiaketaren xede den kontratuaren zenbatetsitako balioa, bi aldiz beste urte batez luzatu ahal izango den bi urteko aldirako, hau da, lau urteko aldirako, 280.429,75 eurokoa da, BEZ kanpo, urteko lau kuotentzat.

3.2) LIZITAZIOAREN GEHIENEKO AURREKONTUA

Bi urteko aldi baterako lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 139.900 €-koa da, BEZ barne (69.950 €/ urteko), Eskualdeko Txakur, Usoen Bilketa eta Esterilizazio eta Katuen askatze zerbitzu arrunterako.

Prestazio osagarri bat egiteko aukera aurreikusten da, besteak beste, katu gehigarriak harrapatzea, esterilizatzea eta askatzea, bai eta uso gehigarriak uxatzeko kanpaina ere. Bi urteko aldi baterako lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 19.500 €-koa da, BEZa barne (9.750 €/ urte) prestazio osagarri horietarako.

Ondoko udalerriei zerbitzua emateko aukera aurreikusten da, lankidetza-hitzarmena formalizatuz, bai Txakur zerbitzurako eta Usoen bilketa zerbitzurako, bai Katuen harrapaketa, esterilizazio eta askatzerako. Bi urteko aldi baterako lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 10.260 €-koa da, BEZ barne (5.130 €/ urteko) prestazio gehigarri honetarako.

3.3) LIZITAZIOAREN PREZIOAK

Lizitatzaileek banan-banako prezioak adieraziko dituzte eskaintzan (BEZa barne); honako hauek izango dira, lizitatzaileen proposamenetako baldintza teknikoak eta ondoko neurketak oinarri harturik:

- 1. prezioa: ESKUALDEKO TXAKURTEGIA MANTENTZEKO ETA USOAK JASOTZEKO ZERBITZUAREN HILABETE BAT

  Zenbatekoa ezingo da 5.350,00 euro/hilabete (BEZa barne) baino handiagoa izan.

- 2. prezioa: KATUAK HARRAPATU, ANTZUTU ETA ASKATZEKO UNITATEA

  Prezio unitarioa ezingo da 125,00 euro/unitate (BEZa barne) baino handiagoa izan. Tratatu beharreko katu kopurua 46 izango dela kalkulatzen da; udalerriek eskari gehigarria eginez gero, prestazio osagarri bat aurreikusten da, gehienez ere urtean 100 izango dituena.

- 3. prezioa: USOAK UXATZEKO KANPAINA GEHIGARRIA

  4. atalean (USOAK HARRAPATZEA) deskribatutakoez gain, prezio unitarioa ezin izango da 1.500,00 €-tik gorakoa izan kanpainako, (BEZa barne).

LIZITAZIOAREN URTEKO GEHIENEKO AURREKONTUA:

		Prezioa (€, BEZa barne)	Unitateak	Zenbatekoa (€, BEZa barne)
1. prezioa:	Eskualdeko txakurtegia mantentzeko eta usoak jasotzeko zerbitzuaren hilabete bat	5.350,00 €/hilabete	12 hilabete	64.200,00 €
2. prezioa:	Katuak harrapatu, antzutu eta askatzeko unitatea	125,00 €/unitate	46 unitate	5.750,00 €
			GUZTIRA	**69.950,00 €**

PRESTAZIO OSAGARRIAREN, EGABEN ETA USO-ZERBITZUAREN URTEKO GEHIENEZKO AURREKONTUA

		Prezioa (€, BEZa barne)	Unitateak	Zenbatekoa (€, BEZa barne)
2. prezioa:	Katuak harrapatu, antzutu eta askatzeko unitatea	125,00 €/unitate	54 unitate	6.750,00 €
3. prezioa:	Usoak uxatzeko kanpaina gehigarria	1.500,00 €/unitate	2 unitate	3.000,00 €
			GUZTIRA	**9.750,00 €**

3.4) PRESTAZIO GEHIGARRIAK UDALERRI MUGAKIDEETAKO UDALENTZAT

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak bere mugakide diren udalerrietako udalekin lankidetza-hitzarmenak egiten baditu kontratuaren xede den zerbitzua modu osagarrian emateko, lizitatzaileek banakako prezio hauek eskainiko dituzte, BEZa barne, beren proposamenen baldintza teknikoetan oinarrituta:

- 4. prezioa: <u>MUGAKIDEA DEN UDALERRIAN ESKUALDEKO TXAKURTEGI ZERBITZU GEHIGARRIA ETA USOAK BILTZEA</u>:

  Zenbatekoa ezingo da izan 3.630,00 € baino handiagoa udalerri eta urte bakoitzeko (BEZa barne)

- 5. prezioa: <u>MUGAKIDEA DEN UDALERRIAN KATU GEHIGARRIAREN HARRAPAKETA UNITATEA, ESTERILIZAZIOA ETA ASKATZEA</u>

  Unitateko prezioak ezin izango du 125,00 €-tik gorakoa izan (BEZa barne).

UDALERRI MUGAKIDEENTZAT, PRESTAZIO OSAGARRIAREN URTEKO GEHIENEZKO AURREKONTUA

		Udalerri mugakideen kopurua	Prezioa (€, BEZa barne)	Unitateak	Zenbatekoa (€, BEZa barne)
4. prezioa:	Eskualdeko txakurtegia mantentzeko eta usoak jasotzeko zerbitzuaren hilabete bat	1	302,50 €/hilabete	12 hilabete	3.630,00 €
5. prezioa:	Katuak harrapatu, esterilizatu eta askatzeko unitatea	1	125,00 €/unitate	12 unitate	1.500,00 €
				GUZTIRA	**5.130,00 €**

4. DERRIGORREZ BETE BEHARREKO BALDINTZA TEKNIKOAK – NAHITAEZKO BETEKIZUNAK

Lizitatzaileek eskaintza bakar bat aurkeztuko dute, baldintza teknikoen agiri honetan eta administrazio baldintza berezien agirian jasotako zehaztapenak betez. Beraz, lizitatzaileek eskaini behar duten prezioetan, baldintza agiri honen 3. apartatuan aipatutakoetan, jarraian azaltzen diren aginduak hartuko dira aintzat:

Zeregin bakoitza egiteko modua eta kontratuaren xede diren lanak egiteko jarri beharreko baliabide materialak

⇨ Zerbitzu estandarra astelehenetik ostiralera emango da, egun biak barne, 08:00etatik 20:00etara, eta 08:00etatik 14:00etara, larunbatetan. Animalia biziak nahiz hilak jasotzeko zerbitzua, premiazko bada, eguneko 24 orduetan bermatuko da. Era berean, igandean larrialdiak artatuko dira. Enpresa esleipendunak harremanetarako telefono iraunkorra jarriko du zerbitzu-eskaerei erantzuteko, bai egunez, bai gauez. Zerbitzuaren eskakizunei gehienez 40 minutuko epean erantzungo zaie eguneko ordutegian, eta 60 minutuko epean gaueko ordutegian; gaueko ordutegitzat joko da 20:00etatik 08:00etarako aldia. Kontratuan sartzen dira, Mankomunitateak ez ezik, agintari batek zerbitzu zehatz bat emateko eskatzen dituen premiazko zerbitzuak.

⇨ Jasotzen diren eta animaliak jasotzeko eta ongizaterako zentroan mantendu behar diren animaliak hauek dira: Debabarrena eskualdeko udalerrietako herriguneetan, aplikagarriak diren udal ordenantzak betetzen ez dituzten txakurrak eta katuak.

Jaso beharreko animalia hilak "azienda txikia" delako multzokoak dira, hau da, txakurrak, katuak, usoak, arratoiak, ardiak eta abar, eskualdeko udalerrietako bide publikoetan daudenak.

Usoak Debabarrena eskualdeko herriguneetan harrapatu beharko dira.

⇨ Lehiaketa honen xede diren animalia biziak harrapatzeko edo hilak jasotzeko zerbitzua betetze aldera, Mankomunitateak, hura osatzen duten udalek edo Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatean dauden agintariek egunero bideratzen dituzten eskaerei erantzuna eman beharko die animalia biziak edo hilak jasotzeko zerbitzuak. Egun berean harrapatu edo bidetik kendu beharko dira animaliak, eta lan horiek egiteko gehieneko denbora 40 minutu da, egin beharreko jarduketa jakinarazten denetik aurrera.

⇨ Adjudikaziodunak nahitaez bildu beharko du eskaeran aipatutako animalia, aurreko paragrafoan zehaztutako moduan, eta animaliak jasotzeko eta haien ongizaterako zentrora eraman beharko du; zentroa Eibarko Transferentzia Estazioan dago. Katuei dagokienez, bildu eta identifikatutakoak

animaliak jasotzeko eta haien ongizaterako eskualdeko zentrora eramango dira, eta aplikatu behar zaien legezko tratamendua emango zaie.

⇨ Enpresa adjudikaziodunak albaitari bat izango du, animaliak babesteko zentroen kudeaketari eta animaliak edukitzeari buruzko prestakuntza duena. Albaitariaren zerbitzua emateko ordutegia, kontratazioak ezarritakoa, egunean ordubetekoa izango da, astelehenetik ostiralera. Behar bezala frogatu beharko da, sartzean eta irtetean fitxatuta.

⇨ Enpresa adjudikaziodunak zorrotz bete beharko du animaliak edukitzearen inguruan indarrean dagoen Udal Ordenantza. Halaber, emandako zerbitzuaren inguruko hileko eta urteko txostenak egin beharko ditu, non adieraziko baitira: abisuaren eguna eta ordua; animalia jabeari itzuli, beste bati esleitu ala sakrifikatu den, eta horren datuak; eta zerbitzuari buruz eman beharreko beste edozein xehetasun.

⇨ Abandonatutako txakurrak eta katuak harrapatzeko eta jaso beharreko gainerako animalien hilotzak garraiatzeko erabilitako bitartekoek araudi aplikagarriak eskatzen dituen higiene eta osasungarritasun baldintzak beteko dituzte, eta behar bezala gaitutako langileek artatuko dituzte animaliak.

⇨ <u>IBILGAILUAK:</u> Enpresa adjudikaziodunak gutxienez bi ibilgailu izango ditu, txakurrak, abandonatutako katuak eta usoak biltzeko zerbitzurako: animalia biziak jasotzeko bat (gutxienez) eta animalia hilak biltzeko bat. Ibilgailuek ekipamendu egokia eramango dute, eta honako ezaugarrien arabera egokitu beharko dira kanpotik:

- Furgoneta motako ibilgailuak, behar bezala egokituak, jasotako animaliak garraiatzeko behar besteko espaziorekin; furgoneta horiek animalia biziak eta hilak garraiatzeko homologatuta egon behar dute.
- Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede den zerbitzua urteko 365 egunetan emateko adina langile atxiki beharko dizkio zerbitzuari; langile horiek animaliak jasotzeaz eta jasotako animaliak garraiatzeaz arduratuko dira, eta animaliak garraiatzeko baimena izango dute, arriskutsu izan daitezkeen txakurrak jasotzeko baimena barne.
- Animaliak jasotzean erabiltzeko beharrezko elementu teknikoak, bereziki, lakioak, sareak eta kaiolak.
- Kontratuaren xedea betetzeko atxikitako ibilgailuek honako idazkun hau eraman beharko dute: “Animaliak jasotzeko eta haien ongizaterako zentroa”. Idazkun hori elebiduna izango da, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo da, eta 0,5 x 1 metroko tamaina izango du, gutxienez. Horrez gain, ibilgailuek Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen ikurra ere eramango dute.

⇨ <u>ANIMALIAK JASOTZEKO ETA HAIEN ONGIZATERAKO ZENTROA:</u> Jasotako txakurrak zentroan hartuko dira, non albaitarien tratamendu eta tratamendu etologiko egokiak emango zaizkie; txakur bakoitzari fitxa bat egingo zaio, datu hauekin, gutxienez: deskribapena, argazkia, noiz jaso den,

osasun egoera, mikrotxipa (halakorik balu) eta emandako zerbitzuaren kontrola egiteko –unean edo etorkizunean– erabilgarria izan daitekeen beste edozein datu.

⇨ Jendearentzako arreta zerbitzua: animaliak jasotzeko eta haien ongizaterako Eibarko zentroko instalazioetan. Egunean ordubete, astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 20:00etara. Zerbitzua eman dela frogatuta geratu beharko da, sartzeko eta irteteko orduak egunero fitxatuta. Animaliak jasotzeko eta haien ongizaterako zentroan animaliarik ez badago, jendearentzako arreta zerbitzuaren orduak jarduera osagarrietarako erabiliko dira. Dagokion ordenantzan aurreikusitako zerbitzuak emango zaizkie partikularrei.

⇨ <u>ANIMALIAK BILTZEKO ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASAREN KOBRANTZA KUDEATZEA</u>

Ordenantza bidez onartutako tarifen artean daude, alde batetik, bide publikotik abandonatutako animaliak biltzeko tasa eta, bestetik, bilketa-zentroan egoteagatik eta animalia egoteagatik tasa, zeinaren onuraduna Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea izango baita.

Tasak sortuko dira bide publikotik abandonatutako animaliak biltzeko zerbitzua ematen hasten denean eta, hurrenez hurren, animaliak biltzeko zentrora eramaten direnean.

Jabeak, animalia eskualdeko bilketa-zentroan badago, berreskuratu nahi badu, jabea dela egiaztatu egin beharko du bai eta zerbitzu hori emateagatik zor diren zenbatekoak ordaindu ere, animaliak biltzeko zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikuluan adierazitako tarifen arabera. Tasaren zenbatekoa Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko diruzaintzan sartu ondoren, erakunde honek egiaztagiria emango du animalia atera ahal izateko. Animalia jabeari edo zuzenean kontratuaren esleipendunari eman ahal izango zaio. Horrela, esleipendunari ordainagiria eman beharko zaio, animalia jabeari edo hark baimendutako pertsonari itzul diezaion.

⇨ <u>ANIMALIEN ZAINTZA</u>

Jasotako animaliak zaindu egingo dira, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak horretarako Eibarren dituen instalazioetan.

Atal honetako betebeharrak honako hauek dira:

- Animaliak mantentzea, urteko egun guztietan elikadura egokia bermatuta eta animaliak jasotzeko eta haien ongizaterako zentroko kaiolak eta instalazioak behar bezala garbi mantenduta.
- Animaliak jasotzeko eta haien ongizaterako zentroan dauden txakur guztiak paseatzea, indarrean dagoen legediak xedatutako denboraz.
- Animaliak zentroan sartzerakoan izan ditzaketen parasitoak kentzea.
- Albaitariaren eginkizunak:

- Animaliak jasotzeko eta haien ongizaterako zentroan sartzen diren katu eta txakur guztiei bisita egitea.
- Albaitariak jasotako animalia aztertu egingo du, zentroan sartzerakoan.
- Beharrezkoa izanez gero, kanpoko parasitoak kentzea, intsektiziden eta akariziden bitartez.
- Beharrezkoa izanez gero, parasitoak kentzea, praziquantel, levamisol edo beste barruko antiparasitario batzuen bitartez.
- Gaixo edo zaurituta daudelako zaintza bereziak behar dituzten animaliei osatzeko tratamendu egokia eman beharko zaie, eta osatu arte isolatuta egongo dira, besteak ez kutsatzeko.
- Sendaketa txikiak.
- Udalerrian erroldatutako txakurrak harrapatu badira, udalei jakinaraztea eta txakurren identifikazio datuak eta argazki bat helaraztea.
- Usoen gizengarriaren jarraipena egitea eta ondoren harrapatzea, animalien ongizatea bermatzeko.
- Eutanasiak: zero helburua. Eutanasia errukiorrak bakarrik egingo dira, salbuespenezko kasuetan, animaliek gaixotasun luze eta gogorrak badituzte, eta bereziki arriskutsuak diren txakurren kasuetan. Eutanasiarik egin behar izanez gero, aurretik Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen Zuzendaritzak oniritzia eman beharko du.

  Sakrifikatzeko metodoa:
  - ✓ Lizitatzaileak proposatu beharko du, metodo eskuragarria eta eraginkorra dela, emaitza onak dituela eta animaliak babesteko araudia eta legedia betetzen dituela egiaztatuta.
  - ✓ Sakrifikatutako animaliak enpresa adjudikaziodunak kendu beharko ditu, indarrean dagoen araudia eta legedia betez, eta animalia horiek horretarako gaitutako eta baimendutako establezimendura edo instalaziora eraman beharko ditu.
  - ✓ Jarduera hori 6/1993 Legeak, urriaren 29koak, animaliak babesteari buruzkoak, eta 454/1994 Dekretuak, azaroaren 22koak, zentzu horretan animaliak babestearen inguruan ezarritako baldintza eta betebehar guztiak betez burutuko da.
  - ✓ Usoak sakrifikatzeari dagokionez, horiek indarrean dagoen araudiari jarraikiz sakrifikatzeaz gain, harrapaketa bakoitzeko txosten bat egin beharko da, erabilitako sakrifizio metodoari buruzkoa; txosten horrek jasoko du hildako usoak haien hondarren azken tratamendurako lekuan utzi direla, entregaren albarana erantsita, hori guztia, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako betekizunei jarraikiz.

- Animalia hilak (txakurrak, katuak, usoak, arratoiak, ardiak, ahuntzak eta azienda txikia delakoa osatzen duten gainerako animaliak) haien azken lekura eramatea, hau da horretarako baimendutako establezimenduan uztea. Jarduera horren eta

establezimenduak animalia hilei emandako azken tratamenduaren kostua enpresa adjudikaziodunak ordaindu beharko du.
- Mikrotxipa jartzea, jasotako txakurrak mikrotxipik ez badu.
- Aurreko atalekin eta erregistro liburuarekin lotutako gorabeheren eguneko partea egitea.

- Instalazioen higieneari buruzko programa bat prestatu eta betetzea; eskaintzan zehaztu beharko da. Animalien profilaxiaren programa bat ere egin beharko da.

⇨ Erabiliko diren ibilgailuak homologatuta egongo dira eta kontratuaren xedeari jarraikiz animaliak –biziak zein hilak– jasotzeko eta lekualdatzeko beharrezko baimena izango dute, kontuan hartuta animalia biziak Eibarko Transferentzia Estazioan dagoen zentrora (animaliak jasotzeko eta haien ongizaterako zentroa) eraman behar direla, eta animalia hilak, horretarako baimendutako zentroetara.

⇨ Enpresa adjudikaziodunak zerbitzu horren alderdi guztiei erantzuna emateko behar diren giza baliabide guztiak izango ditu.

⇨ Udal Ikuskaritzak hala eskatuta, bide publikotik jasotzea animalia askeak, galduak, abandonatuak, erasoak egin dituztenak, haiek erretiratzea dakarten zehapen espedienteak edo espediente judizialak dituztenak, hildakoak edo zaurituak.

⇨ Aurreko paragrafoan aipatutako animaliak biltzea, istripuak sortu badituzte edo behaketan edo koarentenan egon behar badute, dagokion organismo ofizialak hala eskatuta.

⇨ Jasotako animalia guztiei dagozkien albaitariaren osasun azterketak egitea eta albaitariak agindutako medikamentu guztiak erabiltzea. Ikuskapena egin duen albaitaritza zerbitzuak ikuskapen horri dagokion akta egin beharko du, eta dagokion sail teknikoari bidali beharko dio. Kasu berezia izango da zauriak egin dituzten animaliena edo organo judizial eskudunaren eskuan daudenena; horrelakoetan, banakako akta eskatuko da.

⇨ Jasotako animaliak edoskitzea eta mantentzea egonaldiak iraun bitartean, baita albaitaritza zerbitzuak parasitoak kentzea eta txertoak jartzea ere.

⇨ Egunero egin behar den garbiketa eta higienea, astelehenetik larunbatera, bai animaliena, bai erabilitako instalazioena.

⇨ Animaliak banakako kaioletan edukitzea, egonaldiak iraun bitartean.

⇨ Gizakiei eta beste animalia batzuei kutsatu dakizkiekeen gaixotasuna dutela susmatzean beharrezko neurri guztiak abian jartzea, osasun agintariek emandako jarraibideei eta irizpideei jarraikiz, kutsadurak saihesteko; neurri horien artean egon daitezke albaitaritza azterketak, tratamenduak egiaztatzea, koarentena edo animalia sakrifikatzea.

⇨ Zauriak eragin dituzten animalia, txakur edo katuak eta ustez amorrua dutenak zentroan sartzeko, bakartzeko eta osasun azterketa egiteko proposatzea. Horiek albaitariaren behaketan egon beharko dute animaliak jasotzeko eta haien ongizaterako eskualdeko zentroan.

⇨ Txostena egitea, erasoak egin dituzten animalien balizko arriskutsutasuna balioesteko edo arriskutsua izan daitekeela uste den kasuetan, edota txakurraren ezaugarrien eta martxoaren 22ko 287/2002 Dekretuaren II. Eranskinean jasotako ezaugarrien bateragarritasunaren inguruko zalantzak argitzea.

⇨ Mikrotxipa edo identifikatzeko elementu mikroelektroniko bat jartzea, beharrezkoa bada eta jasotako animaliak halakorik ez badu, indarrean dagoen legezko araudiari jarraikiz.

⇨ Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatera bidalitako salaketei edo kexei erantzutea, animaliekin (txakurrak, katuak, usoak, arratoien eta intsektuen izurriak eta abar) zerikusia badute eta teknikari baten esku hartzea eskatzen badute.

⇨ Adoptatu daitezkeen animalia guztien argazkiak egitea eta, animalia bakoitzaren deskribapenarekin batera, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen zerbitzuei bidaltzea, eskualdeko webgunean jartzeko.

⇨ Zerbitzua ematea kontrolatzeko oinarrizko informazio moduan, adjudikaziodunak, nahitaez, honako informazio hau egunean izango du, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen zerbitzu teknikoak edozein unetan eskatzeko aukera bermatuta:

- Kaiolen garbiketa eta desinfekzioen liburua.
- Osasun kontrolen liburua.
- Desinfekzioen liburua.
- Hildako animaliak kentzearen liburua.
- Tratamenduen liburua.
- Sarreren eta irteeren liburua.
- Bisiten liburua.

⇨ <u>USOAK HARRAPATZEA:</u> Barnean hartzen du:

- Urtean behingo kanpaina orokor bat udalerri bakoitzean. Helburua: udalerri horretan egon ohi den uso kopuruaren % 70 harrapatzea, gutxienez.

- Bigarren harrapaketa edo harrapaketa osagarria, udal bakoitzeko zerbitzu arduradunen iritziz beharrezkoa balitz; geratzen diren usoak harrapatu daitezke, edo, bestela, populazioa handitu edo aurreko egoeraren antzeko egoerara itzuli bada, egingo da bigarren harrapaketa hori.
- Halaber, udaleko zerbitzu arduradunen iritziz salbuespenekotzat edo larrialditzat jo daitezkeen kasuei ere erantzungo zaie.
- Udalerri bakoitzeko usoen harrapaketak behar beste iraungo du, eta iraupena emaitzen bidez frogatuko da, modu kontrastagarrian, argazki erreportaje baten bitez.
- Gainera, udalerri bakoitzak zerbitzu horren kanpaina osagarriak eskatu ahal izango ditu. Kasu horretan, hori egin aurretik, udal interesdunak Mankomunitateari eskatu beharko dio. Udalari fakturatuko zaio, esleipendunak eskainitako 3. Aleko Prezioaren arabera (USOAK UXATZEKO KANPAINA GEHIGARRIA). Kasu horretan, kontratuaren zuzendariak dagokion jakinarazpena bidaliko dio kontratistari, eta eman beharreko zerbitzua, udalerria, gauzatze-datak eta prezioa adieraziko dizkio. Exekuzio horren prestazio osagarriaren gauzatze-txostena bidaliko dio kontratistak Mankomunitateari.
- Kanpaina bakoitza amaitzean, egindako lana eta emaitzak egiaztatzen dituen txostena aurkeztuko da.
- Harrapatzeko metodoa:
  - Aurrez gizentzeko kanpaina: Gutxieneko aldia: 7 egun.
  - Harrapatzeko metodoa: Bolbora propultsioko sare jaurtigailuen sistema, BOPEren (Banco Oficial Pruebas Eibar) homologazioa duena.
  - Metodo lagungarria: Gizentzeko kaiola automatikoa eta harrapaketa bakarra, sare telematikoen bitartez.
- Sakrifikatzeko metodoa:
  - ✓ Lizitatzaileak proposatuko du, metodoaren eskuragarritasuna, eraginkortasuna eta emaitzak frogatuz.
  - ✓ Sakrifikatutako usoak enpresa adjudikaziodunak kendu beharko ditu, indarrean dagoen araudia eta legedia betez, eta hegazti hilak horretarako gaitutako eta baimendutako establezimendura edo instalaziora eramango ditu.
  - ✓ Jarduera hori 6/1993 Legeak, urriaren 29koak, animaliak babesteari buruzkoak, eta 454/1994 Dekretuak, azaroaren 22koak, zentzu horretan animaliak babestearen inguruan ezarritako baldintza eta betebehar guztiak betez burutuko da.
- Gainera, usoak bilduko dituzten langileek hori Gipuzkoako Foru Aldundiak horren inguruan ezarritako araudiari jarraituz egin beharko dute. Izan ere, usoak jasoko dituzten langileek usoak kentzeko gaituta egon behar dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa plagiziden erregistroan izena emanda egongo dira.

⇨ HAA, KATUAK HARRAPATU, ANTZUTU ETA ASKATZEA:

Nahitaezko baldintza da Mankomunitateak edo hura osatzen duten udalerriek esandako katuak harrapatu, antzutu eta askatzea. Harrapatutako katuak Debabarrena Eskualdera itzuliko dira, katu guneetara; hau da, katu bakoitza harrapatu den gunetik hurbil askatuko da.

Antzutuko diren katuek ezin dute bizirik irautea arriskuan jartzen duen gaixotasunik izan.
Antzutze prozesuaren ondoren, katuak urrutitik ikusita identifikatzeko moduan markatuko dira eta harrapatu diren tokira itzuliko dira.

5. LIZITATZAILEAK BETE BEHAR DITUEN BETEKIZUNAK

Kontratistak honako baldintza hauek bete behar ditu nahitaez:

1. Zerbitzuari gutxienez albaitari elkargokidearen titulazio ofiziala duen pertsona bat atxikitzea, eta higiene eta profilaxi programa bat eskaintzea; hori guztia behar bezala justifikatuko da.
2. Animalia biziak eta animalia hilak garraiatzeko baimena.
3. Animalia biziak eta hilak garraiatzeko baimena izatea.
4. Behar duten txakurrei txipak jartzeko egiaztagiri tekniko nahikoa, indarrean dagoen araudiari jarraikiz.
5. Usoak harrapatzeko metodoen homologazioa edo emaitzen egiaztagiria.
6. Usoak harrapatzeko sareak jaurtitzeko sistemak aplikagarriak diren legezko baldintzak eta betekizunak bete beharko ditu, eta hori erabiltzen duten langileak horretarako gaituta egon beharko dira. (BOPEren homologazioa eta arma baimena).
7. Antzeko jardueretan (txakurtegia, usoen harrapaketa eta HAA) ibiltzeko esperientzia profesionala, modu frogagarrian egiaztatua, gutxienez azken bi urteetakoa, lizitazioaren egunetik zenbatzen hasita.
8. Eusko Jaurlaritzan enpresa plagizida gisa izena emanda egotea.
9. Kontratistak erantzukizun zibileko aseguruaren kopia aurkeztu beharko du.

3. gutun azalean egiaztatuko da baldintza horiek betetzen direla. Baldintza bete ezean edo betetzea egiaztatu ezean, eskaintza baztertu egingo da.

6. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Administrazio klausulen agirian eskatzen den dokumentazioarekin batera, lehiaketako parte hartzaileak honako dokumentazio hau derrigorrez aurkeztu beharko du:

6.1)3. GUTUN AZALEAN BAKARRIK SARTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA, FORMULAK APLIKATUZ EBALUATZEKOA

Atal honi lotutako edozein informazio 3. gutun azala ez den beste batean sartzen bada, eskaintza automatikoki baztertuko da.

"Eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez ebaluatzeko dokumentazioa" gutun azalean edo fitxategi elektronikoan, lizitatzaileek aurkeztuko dituzte:

ESKAINTZA EKONOMIKOA, Txosten Ekonomiko-finantzarioarekin koherentea izan behar duena; eskaintzak honako hauek aipatuko ditu:

PROPOSAMEN EKONOMIKOA.

LIZITAZIOKO PREZIO UNITARIOAK, baldintza agiri honen 3. apartatuan deskribatutakoak.

TXOSTEN EKONOMIKOA: Eskaintza ekonomikoarekin batera, lizitatzaileek Txosten Ekonomikoa aurkeztu beharko dute.

Memoriak banan-banan xehatu beharko ditu zuzeneko eskulanaren eta zeharkako eskulanaren kostuak, adibidez: animaliak jasotzen dituzten langileen kostuak; zerbitzuari atxikitako albaitariarenak, beren orduko kostua eta lehiaketa honen xede den zeregin bakoitzean emandako orduak zehaztuta; animalia biziak eta hilak jaso eta garraiatzeko ibilgailuak, erabili beharreko makineria erabiltzearen kostua, eman beharreko medikamentuen kostua, animaliak mantentzeko kostua, hildako animaliak suntsitzeko kostua, hau da, azken tratamenduarena eta egindako kilometroak. Hori guztia lehiaketaren jarduera bakoitzeko zehaztu beharko da: animaliak jasotzeko eta haien ongizaterako zentroaren kudeaketa eta mantentzea; zentroko txakurren kudeaketa, albaitarien arreta, harrapatutako txakurrak hartzea eta kudeatzea, gauza bera katuekin, usoak biltzeko miaketen kostua, katu koloniekin HAA sistemaren kudeaketa zehatza, eta jasotako animalia hilen azken tratamendua.

6.2)2. GUTUN AZALEAN BAKARRIK SARTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA, BALIO JUDIZIOEN BIDEZ EBALUATZEKOA – EGIN BEHARREKO LANARI BURUZKO TXOSTENA

"*Balio judizio baten bidez ebaluatzeko dokumentazioa"* gutun azalean edo fitxategi elektronikoan, lizitatzaileek txosten teknikoa aurkeztuko dute, zerbitzua osorik eta xehetasunez deskribatzen duena, lehiaketaren xedea den zerbitzu bakoitza emateko modua jasotzen duena; txostenak ahalik eta xehetasun gehien emango ditu eta ahalik eta hoberen azalduko ditu egin beharreko lan guztiak, gutxienez, nahitaezko baldintzatzat jotzen diren apartatuetako bakoitza aipatuz.

Formulen bidez ebaluatzen den ezaugarrietako bat ere ezin da agertu Txosten Teknikoan, hala nola:

- **Eskaintza ekonomikoa eta prezioak.**
- **Txosten ekonomikoa.**

Goian aipatutako datuei dagokienez, ezin da datu kuantitatiborik aipatu, ezta aipatutako ezaugarriak ondorioztatzeko aukera eman dezakeen daturik edo bestelako informaziorik eman ere.

7. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

7.1. Formula bat aplikatuz esleitzen diren puntuak emateko irizpideak (irizpide automatikoak). Gehienez ere 75 puntu, 3. GUTUN AZALA

7.1.1. Zerbitzuari dagokion eskaintza ekonomikoa: kontzeptu honetan, gehienez ere 73 puntu emango dira:

Puntuak banatzeko formulan, "i" eskaintza bakoitzean baloratu beharreko eskaintza ekonomiko moduan, zerbitzu arrunta egiteko urteko aurrekontua hartuko da, baldintza-agiri honen 3.3 atalean zehaztutako prezioen eta urteko gehienezko aurrekontuaren arabera.

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak, onartutako proposamenei dagozkienak, interpolazio linealaren bidez eta onartutako horien arabera kalkulatuko dira, bi puntuek mugaturiko zuzenaren arabera: P1 (Gehieneko beherapena, gehieneko puntuazioa dakarrena: 73 puntu) eta P2 (Zero beherapena, gutxieneko puntuazioa), eta puntu horiek zuzen horretan mugatzen duten tartearen barruan. Aipatutako puntuak hauek dira:

P1 – Eskaintza ekonomikoenari dagokio (Gehieneko beherapena), hau da, lehiaketaren xedea den zerbitzua urte batez emateagatik ordaindu beharreko prezio baxuenari, BEZa barne; gehieneko puntuazioa esleituko zaio (73 puntu).

P2 - Lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontuari (69.950 €/urte, BEZa barne; zero beherapena) dagokio; gutxieneko puntuazioa emango zaio, honako formula honen arabera kalkulatutakoa:

$$Pmin = 73 \times (1 - (3 \times Bmax))$$

(Bmax = Gehieneko beherapena)

Pmin kalkulaturik lortutako emaitza negatiboa bada, zero dela joko da, Pmin=0.

Gainerako beherapenei, Bi, "i" eskaintza bakoitzari dagozkionei, interpolazio lineala erabilita, abzisen ardatzean, P1 eta P2 puntuen artean, ordenatuen ardatzean dagozkien puntuak esleituko zaizkie.

Beherapena (Bi) zatiketa baten emaitza da, non zatikizuna honako hauen arteko diferentzia den: batetik, lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontua *(69.950,00 euro, BEZa barne),* kontratuaren xedea den zerbitzua emateagatik; eta bestetik, "i" eskaintza ekonomikoa, BEZa barne; bestalde, zatiketaren zatitzailea urteko gehieneko lizitazio aurrekontua da, BEZa barne.

Bi = (Gehieneko urteko lizitazio aurrekontua – "i" eskaintza ekonomikoa) / Gehieneko urteko lizitazio aurrekontua

Aurrerago definitutako zuzena lortzeko, lehiaketan onartu diren oinarrizko eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintza ekonomikoak

Izan ere, "i" proposamen ekonomiko bat baxuegia dela eta, ondorioz, proposamen ekonomiko anormala edo neurriz kanpokoa dela esango da, eskaintza horri dagokion "i" beherapenak (Bi) lehiaketan onartutako eskaintza guztien batez besteko beherapena 10 puntu portzentualetan gainditzen duenean, non "i" horrek 1etik "n"-ra arteko balioak hartzen dituen, eta "n" baloratzeko onartu diren eskaintzen kopurua den.

Eskaintza batean edo batzuetan hasiera batean neurriz kanpoko beherapena antzematen bada, baina aztertu ondoren eskainitako prezioak proiektua burutzeko egokiak direla ulertzen bada, neurriz kanpoko beherapena dagoela pentsarazi duen desbiderapena behar bezala justifikatzen baita, proposamen horiek baliagarritzat joko dira eta onartuko dira, eta azken eskaintza ekonomikoenari (gehieneko beherapen berria) dagokiona birkalkulatuko da P1 puntu gisa; gehieneko puntuazioa emango zaio, hau da, 73 puntu.

7.1.2. Usoak Uxatzeko Kanpaina Gehigarriaren Prezioa, kontzeptu horrengatik **gehienez 2 puntu** emango dira:

Usoak Uxatzeko Kanpaina Gehigarriaren Prezioagatik egindako proposamen ekonomikoak puntuazio-sistema honen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikotzat hartuko dira 3. Prezioari (USOAK UXATZEKO KANPAINA GEHIGARRIA) dagokion unitateko prezioa.

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak, onartutako proposamenei dagozkienak, formula honen arabera kalkulatuko dira:

Puntu B.P. i = (2,00 x Pmin)/Pi

Non:

B.P. i puntuak i eskaintzari esleitutako puntuazioa da, i 1etik n-ra bitartekoa, eta n baloratuko diren eskaintzen kopurua da.

Pmin, eskaintza ekonomikoaren balioa da, Usoak Uxatzeko Kanpaina Gehigarriarekin, balorazioa egiteko egindako eta onartutako guztien artean txikiena.

Eta **Pi**, i zenbakidun proposamen ekonomikoko Usoak Uxatzeko Kanpaina Gehigarriaren prezioa da, baloratuko diren eskaintzen artean.

7.2. Balio judizio baten ondorioz esleitzen diren puntuak emateko irizpideak: gehienez ere 25 puntu, 2. GUTUN AZALA

Jarraian azaltzen diren irizpideetan, kontuan izango dira lizitatzaileek idatzitako "EGIN BEHARREKO LANAREN TXOSTENA"ren kalitatea eta ondorioak.

Egin beharreko lanaren txostenean EZIN DA AGERTU Formulen bidez ebaluatzen den ezaugarrietako bat ere, hala nola: Eskaintza ekonomikoa, prezioak edo txosten ekonomikoa.

Lanaren txostena honako kontzeptu hauek kontuan hartuta baloratuko da:

- ⇨ Usoak harrapatzeko prozedura. Gehienez ere 6 puntu.
- ⇨ Txakurrak harrapatzeko proposatzen den prozedura. Gehienez ere 6 puntu.
- ⇨ Txakurrak jabeei itzultzeko eta itzuli ezin diren txakurrak jabe berriei esleitzeko prozeduren proposamenak. Gehienez ere 2 puntu.
- ⇨ Animaliak hartzeko zentroko instalazioak eta kaiolak mantendu eta garbitzeko metodoak eta maiztasuna. Gehienez ere 3 puntu.
- ⇨ Animalia biziak eta hilak jasotzeko eta garraiatzeko ibilgailuen kopurua eta ezaugarriak. Gehienez ere 6 puntu.
- ⇨ Lizitazioaren xede diren zerbitzuak ematera bideratuko diren langileen kopurua eta prestakuntza maila. Gehienez ere 2 puntu.

BERDINKETA EBAZTEKO IRIZPIDEAK

Eskaintza biren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, honela jokatuko da:

- Enpresa bakoitzeko plantillan desgaitasuna duten edo gizarte bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena konparatuko da; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio neurrien bidez langile gehien duena.
- Berdinketa ebatzi ezean, langileen artean aldi baterako kontratu gutxiago dituen enpresa lehenetsiko da.
- Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, plantillan enplegatutako emakumeen ehuneko handiagoa duen enpresaren alde ebatziko da.

Hala ere, ebazten ez bada, zozketaren bidez ebatziko da, baldin eta aurreko irizpideak aplikatzeak berdinketa hautsi ez badu.

8. INFORMAZIO OSAGARRIA

8.1. FORMULEN HAUTAKETA JUSTIFIKATZEA:

Eskaintza ekonomikorako:

Puntuak interpolazio linealaren bidez P1 eta P2 puntuen artean banatzen dituen formula, non P2 lizitazio prezioaren antzekoa den eta P1=73 x (1–(3 x gehieneko beherapena)) legokiokeen; P2, aldiz, eskaintza ekonomikoena da, hau da, beherapen handiena proposatzen duena, eta horri 73,00 puntu emango zaio. Tarteko eskaintzei puntu bien arteko interpolazio lineala aplikatuz esleitzen zaizkie puntuak, abzisa ardatzean eskaintza bakoitzaren beherapenen balioak eta ordenatuen ardatzean eskaintza bakoitzari esleitu behar zaizkion puntuak jarrita.

Hautatutako formulak eskaintza baxuenari kontzeptu horrengatik eslei daitezkeen puntu guztiak esleitzen dizkio, eta lizitazio prezioari honako hauek: gehieneko puntuazioa (1 – 3 x gehieneko beherapena) faktoreaz biderkatuz lortutako puntuak, gehieneko beherapena bateko hainbestean adierazita.

Ondorioz, lizitatzaile batek zerbitzua lizitazio prezioaren truke ematea eskaintzen badu, puntu gutxiago jasoko du ahalegina egin duten eta lizitazioarena baino prezio baxuagoa proposatzen duten eskaintzaileek baino.

Gainera, lizitazio prezioa proposatzen duen eskaintza baten puntuazioa are txikiagoa izango da, eskaintza ekonomikoenaren beherapena kontuan hartuta; izan ere, nabarmen urrunduko da puntuak alderantzizko proportzionaltasunaren arauaren bidez banatzeko irizpidetik, esleitu beharreko puntuak interpolatzen diren zuzenaren malda nabarmen handiagoa baita zenbat eta baxuagoa izan eskaintza ekonomiko onena. Horrela saritzen da prezio txikiagoa eskaintzeko ahalegina; gainera, erabilitako formularen beste ezaugarri bat hauxe da: lizitatzaile desberdinek antzeko beherapenak eskaintzen badituzte, formulak antzeko puntuazioak esleitzen dizkie.

Usoak Uxatzeko Kanpainaren Gehigarriaren Prezioaren puntuak esleitzeko

Puntuak kanpaina gehigarrian eskainitako balioen alderantzizko proportzioaren arabera banatuz esleitzea proposatzen da, hau da, kanpainako prezio handiagoei puntuazio txikiagoak egokituko zaizkie.

Horrela, proposamen hobeak aurkezten dituzten lizitatzaileek egindako ahalegin handiagoa baloratzen da, ordezko prezio onuragarriagoekin.

9. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO PREZIOA KALKULATZEKO METODOA

Lizitazio prezioa kalkulatzeko, aintzat hartu da jarraian azaltzen den kostuen banaketa, kostua osatzen duten sail desberdinen garrantzia honako hau izanik: Zuzeneko langileen gastua: % 57; zeharkako langileen kostua: % 13; horniduren kostua: % 17; finantza gastua: % 2; ibilgetuaren amortizazioa: % 2; gastu orokorrak: % 3; mozkin industriala % 6; hau da, gastu orokorrak kostu osoaren % 74 dira, zeharkako gastuak % 17 eta egon daitezkeen beste gastu batzuk % 19.

Animalia bizien eta hilen bilketa- eta tratamendu-zerbitzuaren kostuen kalkulua, animalia-ondasunaren zentroan

Kostuak kontzeptuen arabera xehatuta	Kostuetan parte hartzearen %				Kostuetan parte hartzea, eurotan (BEZa kanpo)			
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Beste gastu batzuk		Zuzenekoak	Zeharkakoak	Beste gastu batzuk	
Langileen gastuak, ZUL	0,57				39.961,24	0,00	0,00	0,00
Langileen gastuak, ZEL		0,13			0,00	9.113,96	0,00	0,00
Hornidurak	0,17				11.918,27	0,00	0,00	0,00
Gastu finantzarioa		0,02			0,00	1.402,15	0,00	0,00
Ibilgetuaren amortizazioa		0,02			0,00	1.402,15	0,00	0,00
Gastu orokorrak			0,03		0,00	0,00	2.103,22	0,00
Etekin industriala				0,06	0,00	0,00	0,00	4.206,45
GUZTIRA	0,74	0,17	0,03	0,06	51.879,51	11.918,26	2.103,22	4.206,45
	1,00				70.107,44			